



Egon badaude. Konplizeen bila

ELGETAKO urtarrikole asanbladak alderdi on asko izan zituen. Lehenik, oso partehartze handia izan zuen: 83 bat menditaldetako ordezkariak agertu ziren, kirolari, tekniko eta epaileez gainera, eta honek erakusten du Federazioa erakunde bizia dela eta jende asko prest dagoela larunbat arratsalde bat galtzeko, hurrengo urteetako ibilera erabakitze aldera. Bigarrenik, giroa lasaia eta atsegina izan zen, eta honek esan nahi du borroka eta mendekualdiak atzean utzi ditugula. Esan gabe doa punturik garrantzikoena Asanbladak gehiengo handiaz Zuzendaritza bat aukeratu izana dela, hots, giza-ekipo bat onartu eta lan-plangintza bati oniritzia eman ziola. Baina beste hautagaitzak ere aintzat hartzeko moduko boto kopurua izan zuen, segituan komentatuko dudana legez, balio handikoa izan daitekeen kontua.

Zuzendaritza taldea oinarritzko puntua da eta beronen osaketa lan eder eta zaila gertatzen ari da. Talde osatua izan behar da, koherentea, gustura lan egiten duena, jarriren-bermea emango duen epe luzeko egitasmo baten inguruan elkartua sentitzen dena. Gaitasuneko pertsona prestu, arduratsu, aske, baikor, irekierak osatu behar dute. Eta halako pertsonak egon badaude, baina ez da erraza aurkitzea. Bilaketa (*la busca*, Barojaren hitzetan) kontu handiz egin izan da. Zenbait kasutan, konpromisoa hartzeko lanpetuegi zeuden edo dagoeneko arlo honekiko loturak hautsiak zituzten. Lagun nahiz erreferenteen giroetan galdekatzen, behin eta berriz ekiten aritu gara, errepikatzen diren izenak baieztatzen diren arte. Eta haietako batzuek onartu egiten dute konpromisoa.

Dugun lan plangintza gogoberetzeko moduko egitasmoa da. Federazioaren zeregina mendizaleentzat baldintzarik hoberenak dituen jarduerak egokia ematea da, haiek guztiak, neska zein mutil, gazte zein adineko, oinarritzko zein eliteko, sasoiaren zein gaitasun urriko, mendira joan ahal izan daitezkeen, bakoitzak gustuko duen horretan gozatzen, hori bai, joko arauak errespetaturik: besteekiko elkartzasuna eta naturarekin

begirunea. Eta plangintzak bi atal ditu: lehenbizikoa azken urteetan lorturikoa sendotzea –eta hobetzea– da eta bigarrena gure mendizaleetasuna behingoz XXI. mendean kokatuko duten programa berri batzuk abian jartzea dugu.

Askoren laguntzaren beharra daukagu. Oihaneko esaera zaharraren arabera, ezin da esku bakarraz zuhaitzera igo. Halaber, arraunean guztiok traineru berean aritu behar garela gogora ekarririk, mendizaleentzen beren jarduna eskaintzen dutenen ahalegina baliatu behar dugu, baita herrialdeetako federazioetan lanean aritzera animatu direnena ere. Modu berean, kemenik ezarekin amaitu eta pertsona askoren partehartzea bultzatu behar dugu, orain arte bururatu ez bazaien ere, arazoei irteera ematen eta aukerak baliatzen lagunduko diguten jakintzak eta abileziak ekartzeko gauza dira eta. Horrelakoak ere egon badaudelako.

Eta guztien artean kolektibo batean dugu bereziki esperantza jarria. Gure hautagaitza bozkatu ez duten mendizaleak dira hain zuzen ere. Haietako zenbaiten botoaren esanahiak Federazioak orain arte egindako lanarekiko jarrera kritikoa adieraz dezake. Bikaina. Beren eskaerak helaraztea galdatzen diegu ozenki. Beren desadostasunak aditzera emateko bidea bila dezatela. Haiekin eztabaidatuko dugu eta horixe izango da elkarrekin lan egiteko modua, guztientzako onena bilatu nahian.

Ohar bat, ordea, neure izaeraz, bai haietaz eta bai gainerakoentzat ere. Jende asko bertatik bertara ezagutzeko gogoak ditut eta horretarako posible ditudan ahaleginak egingo ditut, baina egin behar dudanean ez baditut pertsonalki ezagutzen, ez daitezela, arren, haserretu. Fisionomista onaren ezaugarriak banatu zituzten egunean ni mendian egongo nintzen segur aski, izpirik ere ez baitzizaidan egokitu.

Lanean ari gara jadanik: pertsonekin harremanetan jartzen, itunak hitzartzen, Administrazioa hurrerretzen, mendizalegoaren ordezkari lanak egiten, haien nahien berri jasotzen... eta diru-kontuak ixten, lizentziak eskuratzeko urratsak berbideratzen, lehiaketen egutegiak ezartzen... munduko asti guztia ez daukagulako. Guztien artean eginiko ahaleginak lortuz joango garen horrek kitatuko ditu.

Haberlas haylas. Buscando cómplices

LA Asamblea de enero en Elgeta tuvo muchos aspectos positivos. En primer lugar hubo una asistencia muy alta: acudieron representantes de hasta 83 clubs, además de deportistas, técnicos y jueces, lo cual manifiesta que la Federación es un organismo vivo y que mucha gente está dispuesta a sacrificar un sábado por la tarde para decidir la marcha de los próximos años. En segundo lugar, el ambiente fue distendido y agradable, lo que quiere decir que hemos dejado atrás momentos de peleas y revanchas. Evidentemente el punto más importante es que la Asamblea eligió por amplia mayoría una Junta Directiva, es decir aceptó un equipo humano y aprobó un programa de trabajo. Pero incluso hubo un número respetable de votos para la otra candidatura, lo cual también puede ser muy válido, como comentaré luego.

El equipo directivo es un punto importante y su configuración está siendo una labor bonita y difícil. Tiene que ser un grupo completo, coherente, que trabaje a gusto, que se sienta vinculado por un proyecto a largo plazo que dé garantías de continuidad. Tiene que estar compuesto por personas dispuestas, capaces, responsables, libres, positivas, abiertas. Y esas personas, haberlas haylas, pero no es fácil encontrarlas. La búsqueda (*la busca*, que decía Baroja) ha sido delicada. En varios casos, estaban demasiado ocupadas para comprometerse o se habían desligado ya de este ámbito. Ha habido que indagar e insistir entre los círculos de amigos y referentes, hasta que se van confirmando nombres que se repiten. Y algunos aceptan el compromiso.

El programa de trabajo es un proyecto ilusionante. La misión de la Federación es proporcionar un marco de actuación que permita las mejores condiciones para que los montañeros, todos, ellas y ellos, jóvenes y mayores, de base y de élite, en plena forma y discapacitados, puedan ir al monte a disfrutar cada uno en lo que más le guste, cumpliendo, eso sí, las reglas del juego: solidaridad con los demás y respeto a la naturaleza. Y el programa consta de dos partes: la primera es consolidar –y mejorar– lo que se ha conseguido en los últimos años y la segunda es poner en marcha

definitivamente una serie de nuevos programas, que sitúen nuestro montañismo en el siglo XXI.

Necesitamos la colaboración de muchos. Recordando el viejo dicho de la selva de que con una sola mano no se puede subir al árbol, y eso de que todos debemos remar en la misma trainera, tenemos que aprovechar lo esfuerzos de muchos que entregan su dedicación en los clubs de montaña y de los que se han animado a trabajar en las federaciones territoriales. Y también tenemos que romper la inercia y animar a colaborar a muchas personas a quienes hasta ahora no se les ha ocurrido hacerlo, pero que pueden aportar sus conocimientos y habilidades personales que nos ayudarán a resolver problemas y aprovechar oportunidades. Porque también aquí haberlas haylas.

Y entre otros hay un colectivo en el que tenemos especial esperanza. Son precisamente los clubs que no han votado nuestra candidatura. El sentido del voto de algunos de ellos puede significar una actitud crítica con la labor desarrollada hasta ahora por la Federación. Estupendo. Les pedimos en voz alta que nos hagan llegar sus reivindicaciones. Que busquen la forma de explicitar sus desacuerdos. Lo discutiremos con ellos y esa será la manera de trabajar en común para buscar lo mejor para todos.

Pero una advertencia sobre mí, para ellos y para los demás. Me gustaría conocer personalmente a mucha gente y haré los esfuerzos que pueda para ello, pero tengo que pedir que no se ofendan si no les reconozco personalmente cuando debería hacerlo. El día que repartieren la calidad de buen fisionomista creo que yo estaba en el monte y no me tocó nada.

Estamos trabajando ya: contactando con personas, concertando alianzas, acercándonos a la Administración, representando al colectivo montañero, enterándonos de sus preferencias... y cerrando las cuentas, reorientando la tramitación de las licencias, estableciendo los calendarios de competiciones... porque no tenemos todo el tiempo del mundo. Lo que vayamos consiguiendo justificará los esfuerzos que realizamos entre todos.

Txomin Uriarte
Euskal Mendizale Federazioaren Lehendakaria